

Sagrario Aleman

IKA-ko irakaslea

Euskara aukera ona, norentzat?

■ Euskarari dagokionean nafartarren iritzia asko aldatu da azken hamarkada hauetan, hori nabaria da karrketan: eguneroko bizitzan; euskaraz ari denak ez du, orain dela 20-30 urte bezalako erantzun kaxkarririk entzun behar izaten. Euskaraz dakienaz bekaizti ere badela jendea esan dezakegu, jakin nahia azaltzen baitute maiz. Euskararen aldeko ekitaldietan ere anitz lagun biltzen da. Eta karrketan susmatzen eta ikusten dugun hori bera ageri da Nafarroako Gobernuaren enkarguz, euskararekiko jarrerak ikusteko egindako azterketetan, euskara gehiago promozionatu beharko luketela/litzatekeela eta gisako erantzunak ematen baititu askok.

Aldeko jarrera izatea ez da aski ordea, alde egote horretatik zerbait egitera pauso tiki bat bada, eta pauso tiki hori eman dutenak ere gero eta gehiago dira. Euskara nonahi eta noiznahi, egoera formaletan edota informaletan erabiltzen duenik bada. Euskara taldeetan buru-belarri lanean ari denik ere ez gutxi. Seme-alabak euskaraz eskolatzen dituzten gurasoak, urteik urtera gehiago dira, ehunik ehuneko oso aparta egon arren ordaindik.

Euskaraz eskolatzeko honetan administrazioa bera sartu da, beti eskaeren atzetik eta frankotan, aurretik oztipoak jarri gainera, baina sartu sartu da. Eta ez hori bakarrik, bai instituzioetatik bai beste toki askotatik ere, hizkuntza normalizazioa haurrak eskolatzetik datorrela esan digute eta hori aski dela sinestarazi. Eta horretatik, hori sinestetik, etorri da batzuk haurren-gan uztea euskararen etorkizuna.

Bada hala ere, ahalagin ikaragarriak egiten dituen gazte eta heldurik ere. Beren ikasketaz gain, edo zortzi orduz lanean aritu ondoren edo aurretik, beren poltsatik dirua ordainduz, beren buruak euskalduntzen eta alfabetatzen ari direnak gau-eskola eta eskallegietan. Biharko gizartea euskalduna nahi badugu gaurkoa euskalduntzen hasi behar dugula argi dutenak. Haurrak euskalduntzen egiten dugun ahalagin polit hori alferrik gal ez dadin, helduok eredu izan behar dugula dakitenak, eta euskaraz bizi nahi dutenak.

Honi, helduen euskalduntze eta alfabetazeari, ez diote instituzioek behar duen garrantzirik ematen, ez dira ohartzen, ez dute igeritzen gizartea euskalduntzeko hizkuntza egoera normalizatzean, helduek duten zereginaz. Edo ez dute oharu nahi? Horrexegatik, ohartzen ez direlako, hori pentsatu nahi dugu beti ere, helduen euskalduntze alfabetatze arlorako ematen

Gure Gobernuaren borondatea ez dela oso onan esan behar, euskararendako ematen duen dirua jeisten ari baita

duen diru-laguntza hutsaren hurrengoa da. Gobernuak eskatuta egindako lehen aipatutako euskararen inguruko azterketa batean ageri da Iruñerriari adibidez % 70.1ek euskara ikasi nahiko lukeela. Nahi hori gauzatzeko zalan-zarik ez, ahalik eta erraztasun gehien eta haundien eman behar dela, irakaskuntza ona, merkea eta atsegina eskeiniz, beste gauza askoren artean.

Eta Gobernuak zer egiten du? Aurrekontuetan ikusten baita, lehenentasuneko atalak bulkatzeko ematen dituen diru-laguntzetan hain zuzen, zer-nolako borondatea duen Gobernuak. Eta gure Gobernuaren borondatea ez dela oso onan esan behar, euskararendako ematen duen dirua jeisten ari baita. Hizkuntz Politikako Zuzendaritza Nagusian ikerketa bat agertzen bada ere KPI-a (IPC-a) kontuan izanik jeitsi egin da, orain ez gaude 1993.eko mailan ere. Hezkuntza eta Kultura departamenduan ere lehen esan bezala KPI-a kontuan hartzen badugu 1991tik % 37 inguru jeitsi da.

Helduen alfabetatze euskalduntzean ere ez dugu hobekuntza handirik izan. UPNren Gobernuan inolako ikerkerik izan ez zuen ikasleko eta orduko ematen ziguten diru-laguntza bere horretan baitago Gobernu berriarekin ere, 76 pezetan. Bost ikasturte moduko berberarekin. Baina hau gero, egiaz, ez da horretara ere iritsi: 1994ko azken hiruhilabetean Nafar Gobernuak aurrekontuetako gure partidari dirurik aski ez zela eta ikasleko eta orduko 60 pta besterik ez baitziguten eman, eta 1995ekoan berriz, 35 pta zitzirren-tara jeitsi digute arrazoi beragatik. Joan den urtean 14.000.000 gehiago behar omen zuten 76 pezetako modulua aplikatu ahal izateko. Beraz, aurtan ere, iaz baino 15.000.000 gehiago badira ere partidari emendakin bati esker, arazo bera izanen dugu ikasle edo ikastordu kopurua handitzen bada, eta handitu da dagoeneko, euskaldunon onerako, zoriez.

Zer eskatzen dugu?

1. Gobernuak berak onartutako 76 pta-ko laguntza sinbolikoa bederen jasotzea joan den trimestreari dagokionean.
2. Behin eta berriz, Gobernuari eta Parlamentuko alderdi guztiei eskatu diegun alfabetatze-euskalduntze inguruko eztabaida arlo honetako plangintza elkarrekin egiteko.
3. Aipatu plangintza erdietsi bitartean, egun indarrean daogun ordainketa modulorekin gaurkotzea behinik. ■

Txillardeggi



Cayo

Cayo hil da. Baina gutxi daki Euskal Herriari gaitzizenez Cayo izaten zutena nor zen. Galesen, Cymru-n, bai. Cayo izan baitzen Cymru-ko ETAREN sortzailea.

Orain dela 30 urte, ni Bruselen bizi nintzen urteetan, zarata handia atera zuen Galesko Gales Askatuaren *Harmada* izeneko talde harmatuak. Harropaketa handia burutu zuen britaindar Politziak 1968an, eta 1969ko udan Swansea eguztaren galestar *terroristen* kontrako epaiketa.

Abertzale bat agertu zen buru: Julian Evans Cayo izenekoa. 1966an Dubling ospakizunetan (Bazkoko 50. urtemuga kari) egon izana leporatzen zitzaion; eta galestar IRA erakitzeako asmoa egotzen.

Besteak beste, bekatu larri hau leporatzen zioten Cayori: bere etxean OLPrekin, Quebec-eko FLQrekin, are euskal abertzale batzuekin elkartu izana (Burgosko Epaiketa baino lehenago, beraz).

Honen ondorioz *Mudiad Amdiffiyn Cymru* izeneko sabotaje-taldea agertu zen Galesen, zenbait urtez ekintzan aritua.

Geroztik, ordea, suntsitu egin zen osoki galestar IRA bat sortzeko proiektua; eta Cayo ahantzia izan zen.

Orain, 30 urte beranduago, erreparatu ezina izan da Evans-en heriotza: are euskal abertzaleon artean ere.

Hutsune hori zuzentzekotan datoz lerro xume hauek.

Ramon Labaien



Atzo belarrimotz, gaur ere bai

Kezkatuak dabilta EKBko kideak eusko politikarien euskararekin edo gauzak argi esateko, eusko politikarien euskaragabekeriarekin. Belarrimotz gehiegi, Nazioaren gidari izan behar luketen jende hortan artean.

Euskaldun direnak ez nahikoak, euskaldun alfabetatuak lau katu eta euskararen inposatze-ko gogo eta kemenarekin dabilzanak, ez dakit gelditzen zaigun bat ere. Eta ikusiz Alderdiak direla, herriaren aukerari hautagai zerrendak proposatzen dituztenak, Eusko Alderdi abertzaleen ardura litzateke gauzak zuzentzeko behar diren neurriak zirti-zarta erabakitzea. Gaur ikastolari eskerrak, pilaka ditugu hogeita hamar urte eta gehiagoko euskaldun alfabetatuak, eta badute hor alderdi abertzaleek non aukeratu hautagai mota berri bati hasiera emateko, euskaraz mintza, entzun, irakurri eta idazteko gauza direla. Ez da euskaldun, zerbaiten itxura izategatik, lau hitz trakets botatzen dituen, entzuleek ez dakitela euskaraz diren edo txetxenoiz. Eta hamar edo hogeita hamar urteetan politikaz bizi eta gaur hasieran ziren bezain belarrimotz diren horiekin zer egin litekeen, balitke Jainko Jaunak jakitea. Ez baitu Eusko Nazioak etorkizunik izanen zuzendariek euskara inposatu ordea, zuzendariei inposatzea beharrezko den bitartean.

L A P H I T Z A

